



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

LEHENDAKARITZA  
PRESIDENCIA



11\11\05\00\0036 expediente zk.

N.º expediente: 11\11\05\00\0036

**Manuel Lezertua Rodríguez jn.**  
Ararteko

**D. Manuel Lezertua Rodríguez**  
Ararteko

Jaun agurgarria:

Estimado señor:

Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeak, 2018ko martxoaren 19an egindako bilkuran, adierazpen instituzional bat onetsi du, giza eskubideen defendatzaileen alde, ondoko testuaren arabera:

La Comisión de Derechos Humanos e Igualdad, en la sesión celebrada el día 19 de marzo de 2018, ha aprobado una declaración institucional a favor de los defensores y defensoras de los derechos humanos, con arreglo al siguiente texto:

"Legebiltzar honek aditzera ematen du ezen jabetuta dagoela 2018. urtea abagune garrantzitsua dela giza eskubideen aldeko borrokaren oraintsuko historian. Izan ere, aurten betetzen dira 70 urte Nazio Batuek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertala onartu zenetik.

"Este Parlamento manifiesta su conciencia de que este año 2018 representa un hito importante en la historia reciente de la lucha por los derechos humanos. Precisamente en esta fecha se cumplen 70 años de la aprobación por las Naciones Unidas de la Declaración Universal de los Derechos Humanos.


Era berean, 2018an betetzen dira 20 urte Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuenetik Norbanakoek, taldeek eta erakundeek unibertalki aitortutako giza eskubideak eta oinarriko askatasunak sustatzeko eta babesteko eskubide eta betebeharrari buruzko adierazpena, Giza Eskubideen Defendatzaileen Adierazpen gisa ezagunagoa dena. Beharbada, elementurik nabarmenena da nazioarteko betebeharrak giza ezartzen dela pertsona horiei lan egiten duten esparruan laguntza eta babesa eman beharra, jabetuta baikaude lan hori zailagoa eta arriskutsuagoa dela egunetik egunera.

Igualmente, 2018 supone los primeros 20 años de la aprobación, también por la Asamblea General de las Naciones Unidas, de la Declaración sobre el derecho y el deber de los individuos, los grupos y las instituciones de promover y proteger los derechos humanos y las libertades fundamentales universalmente reconocidos, más conocida como Declaración de los Defensores y Defensoras de los Derechos Humanos. Posiblemente el elemento más notorio es el hecho de establecer como obligación internacional la necesidad de proporcionar apoyo y protección a estas personas en el contexto de su labor, la cual constatamos que se torna día a día más difícil y arriesgada.

Erakunde gisa, onez hartzen dugu eta berresten adierazpen horretan egiten den deia, denok ere defentsa horretan erantzukizuna eta betebeharra dugula dioena. Azpimarratu egiten dugu, alabaina, orain, urteurren honetan, estatuena eta erakundeena dela aurrenik eskubide unibertsalen defentsarekiko erantzukizuna eta, adierazpen instituzional honetan bereziki, egun eginkizun horretan nabarmen ari direnen bizitza eta defentsa-lana bermatzearekikoa. Giza eskubideen defendatzaileak bizitzaren eta gizateriaren defendatzaile ere badira. Hori dela eta, onez hartzen dugu eta babesten adierazpen honen bitartez haien lana eta konpromisoa denona izan behar duen borroka honetan.

Como institución saludamos y reafirmamos el llamamiento de dicha declaración a que todos y todas tenemos una responsabilidad y función que cumplir en la mencionada defensa. Pero subrayamos ahora, en este aniversario, la responsabilidad primera de los estados e instituciones para con la defensa de los derechos universales y, de forma especial en esta declaración institucional, para con la garantía de la vida y el ejercicio de esa defensa por parte de aquellos y aquellas hoy dedicados de forma explícita a esta función. Los llamados defensores y defensoras de los derechos humanos son igualmente defensores de la vida y defensores de la Humanidad. Por eso, saludamos y apoyamos mediante esta declaración su desempeño y compromiso en una lucha que debe ser de todos y todas.





Alde horretatik beretik, eta Nazio Batuekin bat (<http://www.ohchr.org/SP/Issues/SRHRDefenders/Pages/Declaration.aspx>), estatuek alor honetan dituzten oinarritzko betebeharrak batzuk oroitarazi nahi ditugu:

-Giza eskubide guztiak babestu, sustatu eta betearaztea;

-Beren jurisdikziopeko pertsona orok baliatu ahal izatea praktikan eskubide eta askatasun sozial, ekonomiko, politiko eta bestelako guztiak;

-Hartu beharreko legegintza, administrazio eta bestelako neurri guztiak hartzea eskubide eta askatasunen benetako aplikazioa ziurtatzeko.

-Bitarteko eraginkorrak ematea giza eskubideen urraketa baten biktima izan direla salatzen duten pertsonen.

-Ikerketa azkar eta inpartziala egitea ustezko giza eskubideen urraketari buruz.

-Hartu beharreko neurri guztiak hartzea pertsona oro defendatzeko, adierazpenean aipatutako eskubideak legitimoki erabiltzearen aurkako indarkeria, mehatxu, errepresalia, diskriminazio negatibo, presio edo beste edozein ekintza arbitrarioren aurrean.

-Jendea eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturetz jabetzea sustatzea;

-Giza eskubideak sustatu eta babesteko ardura izango duten instituzio nazional independenteak sortzea eta garatzea bermatzea eta babestea; esate baterako, bitartekariak edo giza eskubideen batzordeak.

-Hezkuntzaren eta lanbide-heziketa ofizialaren maila guztietan giza eskubideen irakaskuntza sustatu eta ahalbidetzea.

Alabaina, Legebiltzar hau jabetuta dago balioa galdu duela azken urteotan giza eskubideen diskurtsoak, beste printzipio eta interes batzuen aldean (politikoak, geostrategikoak, ekonomikoak, komertzialak) eta horrek bereziki kezkatzen gaitu.

En el mismo sentido ya expresado, y en consonancia con las Naciones Unidas (<http://www.ohchr.org/SP/Issues/SRHRDefenders/Pages/Declaration.aspx>), queremos ahora recordar algunas de las obligaciones fundamentales de los estados en este campo, como son:

-Proteger, promover y hacer efectivos todos los derechos humanos.

-Garantizar que toda persona sometida a su jurisdicción pueda disfrutar en la práctica de todos los derechos y libertades sociales, económicas, políticas y de otra índole.

-Adoptar las medidas legislativas, administrativas y de otra naturaleza que sean necesarias para asegurar la aplicación efectiva de los derechos y las libertades.

-Proporcionar recursos eficaces a las personas que denuncien haber sido víctimas de una violación de los derechos humanos.

-Realizar una investigación rápida e imparcial sobre las presuntas violaciones de derechos humanos.


-Adoptar todas las medidas necesarias para garantizar la protección de toda persona frente a toda violencia, amenaza, represalia, discriminación negativa, presión o cualquier otra acción arbitraria resultante del ejercicio legítimo de los derechos mencionados en la declaración.


-Promover la comprensión pública de los derechos civiles, políticos, económicos, sociales y culturales.

-Garantizar y apoyar la creación y el desarrollo de instituciones nacionales independientes encargadas de promover y proteger los derechos humanos; por ejemplo, mediadores o comisiones de derechos humanos.

-Promover y facilitar la enseñanza de los derechos humanos en todos los niveles de la educación y la formación profesional oficial.

Sin embargo, este Parlamento también es consciente de la pérdida de valor, en los últimos años, del discurso de los derechos humanos en beneficio de otros principios e intereses (políticos, geoestratégicos, económicos, comerciales), y esto nos preocupa de forma especial.





Alor horretan bertan, ikusten ari gara etengabe hazten doazela munduko gero eta herrialde gehiagotan defendatzaileen oinarriko eskubideen urraketak. Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzak gizarte-erakundeekin eta unibertsitate-eragileekin batera garatzen ari den Giza Eskubideen Defendatzaileen Aldi baterako Babes Programari esker, bereziki egiaztatu ahal izan dugu egoera larri hori herrialde jakin batzuetan, hala nola diren Guatemala, Honduras, Kolonbia, Peru edo Mendebaldeko Sahara.

Horiek horrela, Legebiltzar honek adierazpen instituzional hau adostu du:

1.- Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten du bere konpromisoa giza eskubide indibidual eta kolektiboak aintzat hartzearekin, nazioarteko erakundeetan jasok izan diren eran, aipamen berezia eginez 70 urte betetzen dituen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari eta 20 urte betetzen dituen Giza Eskubideen Defendatzaileen Adierazpenari.

2.- Era berean, uste izanik denok dugula erantzukizuna eta zeregina, gizarte-erakundeekin batera, defendatzaileak babestu eta aitortzeari dagokionez, dei berezia egiten diegu estatuei babes horri dagokionez dituzten ardura guztiak bete ditzaten.

3.- Gaitzetsi egiten ditugu bereziki sektore ekonomiko eta politiko batzuek defendatzaileen lanaren aurka burutzen dituzten kriminalizazio-prozesuak. Pertsona horiek, burutzen dituzten bake-ekintzak eta biziaren aldekoak direla-eta, Legebiltzar honen aitortza eta babesa daukate.

4.- Era berean aitortzen dugu Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Defendatzaileen Aldi baterako Babes Programak gaurdaino egindako lana, nazioarteko lankidetzak eta elkartasunaren alorreko euskal gizarte-erakundeekin koordinatuta egina, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu jarraipena eman diezaiola.

5.- Azken hilabeteotan Guatemala, Kolonbia eta Mendebaldeko Saharako defendatzaileak ezagutu eta babestu dituguneko honetan, dei berezia egiten diegu herrialde horietako gobernu eta agintariei giza eskubideak eta giza eskubideen defendatzaile guztiak lana errespetatu ditzaten.

En este mismo ámbito, constatamos el aumento continuo de las violaciones de los derechos fundamentales de los defensores y defensoras en cada vez más países del mundo. En los últimos años, gracias al Programa de Protección Temporal de Defensores y Defensoras de Derechos Humanos, que lleva adelante el Gobierno Vasco junto con organizaciones sociales y agentes universitarios, hemos constatado esta grave situación de forma especial en países como Guatemala, Honduras, Colombia, Perú o Sahara occidental.

En virtud de lo anterior, este Parlamento acuerda la siguiente declaración institucional:


1.- El Parlamento Vasco reafirma su compromiso con la consideración de los derechos humanos individuales y colectivos tal y como han sido recogidos en los diferentes instrumentos internacionales, con especial referencia a la Declaración Universal de los Derechos Humanos en este su 70 aniversario, y a la conocida como Declaración de los Defensores y Defensoras de los Derechos Humanos en su 20 aniversario.

2.- Así mismo, entendiéndose que todos y todas tenemos responsabilidad y funciones que realizar en la protección y reconocimiento de los defensores y defensoras, junto a las organizaciones sociales, hacemos una especial llamada a los estados para el cumplimiento de todas sus responsabilidades en esa misma protección.

3.- Rechazamos los procesos de criminalización que se articulan, especialmente desde algunos sectores económicos y políticos, contra la labor de los defensores y defensoras. Estas personas cuentan, desde sus actuaciones pacíficas y como defensoras de la vida, con el reconocimiento y protección de este Parlamento.

4.- Reconocemos igualmente el destacado trabajo realizado hasta la fecha por el Programa de Protección Temporal de Defensores y Defensoras de Derechos Humanos del Gobierno Vasco, realizado en coordinación con las organizaciones sociales vascas del ámbito de la cooperación y solidaridad internacional, e instamos al Gobierno Vasco para su continuidad.

5.- De forma especial, habiendo conocido y protegido en nuestro país durante los últimos meses a defensores y defensoras de Guatemala, Colombia y Sahara occidental, hacemos una llamada específica a los gobiernos y autoridades de estos países para que respeten los derechos humanos y el ejercicio de la





labor de todas las personas defensoras de derechos humanos.

6.- Eusko Legebiltzarrak Adierazpen Instituzional hau helarazi nahi die Eusko Jaurlaritzari, Arartekoari, Espainiako Gobernuaren Herri Defendatzaile eta agintariei, eta eskatzen die aktibatu ditzatela beharrezko mekanismo eta prozedurak defendatzaileek munduko edozein herrialdetan giza eskubide guztiak askatasunez eta osoki baliatu ahal ditzaten.

6.- El Parlamento Vasco quiere trasladar esta declaración institucional al Gobierno Vasco, al Ararteko, al Defensor del Pueblo y a autoridades del Gobierno español, solicitando a estas instancias que activen los mecanismos y procedimientos necesarios para el total y libre ejercicio de todos los derechos humanos por parte de los defensores y defensoras en cualquier país del mundo.

7.- Eusko Legebiltzarrak, Nazio Batuek Giza Eskubideen defendatzaileei buruzko adierazpenean aitortutako eskubideekiko konpromisoarekin, horiek betetzea zaintzeaz gain, botere publiko guztiei eskatzen die har ditzatela hartu beharreko legegintza, administrazio eta bestelako neurri guztiak eskubide eta askatasun horien benetako aplikazioa ziurtatzeko".

7.- El Parlamento Vasco, en su compromiso con los derechos reconocidos por las Naciones Unidas en su declaración correspondiente a los defensores y defensoras de los derechos humanos, además de velar por su cumplimiento, insta a todos los poderes públicos a adoptar las medidas legislativas, administrativas y de otra índole que sean necesarias para asegurar la aplicación efectiva de esos derechos y libertades".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2018ko martxoaren 19an.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 19 de marzo de 2018.

Ontzat emana  
BATZORDEKO LEHENDAKARIA  
Visto bueno  
LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN

Ana Isabel Oregi Bastarrika

BATZORDEKO IDAZKARIA  
LA SECRETARIA DE LA COMISIÓN

Larraitz Ugarte Zubizarreta

Bakartxo Tejeria Otermin  
Legebiltzarreko lehendakaria / Presidente del Parlamento

